

Hitzaurrea

Intrigazko nobela on batean bezala, bilbearen osagarriak nabarmen ageri dira liburuak kontatzen duen historian barrena; irakurleak ez du tranparik aurkituko argumentuaren harian.

Polizia frankistak lagun batzuekin batera harrapatzen du protagonista Bilbon. Gordeta dagoen etxeko giltzak eta eskuz idatzitako koaderno bat dauzka gainean: preso dauden zenbait etakide kartzelatik ateratzeko egitasmoi buruzko oharrak, besteak beste. Poliziak bere pistola aurkitu du, baina oraindik ez daki norena den. Hala ere, olio-mantxa bat topatzen diote galtzontziloetan, eta horrek salatzen du. Nola emango diozu poliziari helbide faltsu bat, baldin badakizu berehala joango dela egiaztatzera? Nola sinistaraziko diozu ezer ez dakizula, ihes egiteko planak zure letraz idatzita badaude? Nola ukatuko duzu pistola zurea dela, Frantziako estatuan errefuxiatuta zauden militante ilegal bazara, eta olio-mantxa aurkitu badizute?

1971ko martxo harten Salbuespen Egoera zegoen indarrean. Francoren diktadurak agintzen zuen; beraz, poliziak nahi beste egun eduki zezakeen edonor komisarian.

Ondo idatzitako intriga-nobeletan ohi bezala, gauzak ez dira beti irakurleak espero duen moduan gertatzen; ustekabeak, hala ere, sarritan ez dira ezinbestekoak. Arrestian kontatutako zenbait xehetasunetan arreta handiagoa ipiniz gero, aldez aurretik konturatzea ere badago; liburu hau, izan ere, intrigazko nobela ona ere izan zitekeen, baldin eta historia fikziozkoa izan balitz.

Ondo idatzitako nobeletan bezala, kapitulu bakoitza historia osoa da berez, eta, aldi berean, hurrengo atalarekin kateatuta dator. Alde batetik, galdekatzaileak, eta, bestetik, galdekatua; estrategia biren arteko tirabiraren kontakizuna, azken batean; irakurlea harrapatzen duena, zer gertatuko, datorrenaren jakin-minez.

Oso kontakizun sendoa da, bai forma, bai egitura, bai erritmoaren aldetik. Ez da, ordea, nobela. Ezta ere “benetako gertaera batean oinarritutako fikzioa”, antzeko zenbait kasutan esan ohi den bezala.

Liburu hau benetakoa da goitik behera. Jose Ramon Goikoetxea “Mentxakak” komisarian eman zituen hamabost egunean oinazea menderatzeko egin behar izan zuen saio itzelaren historia. Baino, era berean, burua argi gordetzeko eta polizia engainatzeko jukutriak eta

aztarna faltsuak sortzeko ahalegin ikaragarriaren historia ere bada. Gauza asko zeuden, izan ere, jokoan: alde batetik, bere kondena, eta, bestetik, ingurukoen segurtasuna.

Engainuaren amarrua batzuetan ondo ateratzen da, eta besteetan ez hain ondo; jipoia eta tortura tartean direla, ez da gobernatzen erraza. Baino hor dago. Kontakizuna hasi eta bukatu arte, etengabe ari zaio irakurlea bere buruari galdezka: "Nola atera behar du oraingoan?", eta irtenbide bakoitza arazo berri, beste historia bat bihurtzen zaio. Irakurtzen hasiz gero, nekez utzi daitekeen liburua da, izan ere, Mentxakaren aitorpena. Harrapatu egiten zaitu erabat.

Kapitulu bakoitza komisarian emandako egun bati dagokio: 1971ko martxoaren 7an erori ziren, eta 21ean eraman zitzuten Basauriko espoxera. "Akabo, dena galdua zegok –pentsatu duzu" irakur daiteke lehen atalean, eta "Azkenean! –atera zaizu pozik, hunkituta" fургоian presondegirako bidean abiatzen diren egunean.

Orain dela urte asko hasi zen Jose Ramon liburu hau idazten. Zenbait historia eta oroitzapen –zati batzuk, behintzat– gertatu eta berehala jaso zituen idatziz. Lo egon ziren gero tiraderaren batean sartuta. Egileak, denbora puska baten ondoren, asmo berriekin berreskuratu zituen. Gogoan daukat nola aipatu zidan liburua 80ko hamarkadaren hasiera aldera. Egun batean, zirriborroa eman zidan irakurtzeko. Orri haietan jasota zegoenari buruz hitz egin genuen gero. Laino artean lausotutako zenbait pasadizo gogoratzen saiatu gineng elkarrekin. Kontua da bere asmo hura berri zere lo gelditu zela zokoren batean, eta luzaro. Behin baino gehiagotan hartuko zituen seguru asko Jose Ramonek paper haiiek esku artean; edozein gauza egiteko gai garela uste dugun beroaldi horietako batean, beharbada, nahiz eta gero asmoak aurrera ateratzeko une egokia ez dugun egundo topatzen. Edo, udazkenera ailegatuta nekea sentitzen dugun egun horietako batean bestela, bukatu ezin izan ditugun gauzei irribarrez begira, muxu bat eman eta atzera bere lekuan lasai uzteko.

Azkenean, lanari ekin zion Jose Ramonek. Ordura arte idatzitakoa erdaraz egon arren, liburua bukatu eta euskaraz berregitea erabaki zuen. Ahalegin horretan zebilen, arin gainera, baina 2005eko udaberrian alde egin zigun. Andoaingo plazan bildu gineng haren oriomenez. Eskuzabal, atsedengarri, irribarre zintzo eta era berean pikaroa bere begi urdinetan, begira ari zitzaigun plazan zabalduta zegoen pankartatik, eta lagun egin zigun atsekabean.

Jose Ramonek hasi zuen itzulpen-lana Rafa Egigurenek bukatu du, senez, eta horrela ailegatu da liburu hau gure eskuetara.

* * *

Jose Ramonek ETAn egindako esperientziari buruz kontatzen dituen oroitzapenak komisarian emandako hamabost egun horietan galdeketari aurre egiteko erabiltzen duen estrategiaren giroan sortzen dira. Lehenago gertatutako pasarte gutxi batzuk kenduta, kontakizunak 1969ko apiriletik 1971ko martxora arteko denbora hartzen du. Aurreneko data poliziak ETA gutxi gorabehera bere osoan desegin zuenekoa da. Ia zuzendaritza osoa erori zen. 1970. urtean epaiketa militarra izan zuten Burgosko Kapitaintza Jeneralean. Bigarrena, esan bezala, Jose Ramon Bilbon harrapatu zuten hilabeteari dagokio.

1970eko irailean ETAK VI. Biltzarra egin zuen, eta hiru zatitan banatu zen. Iparraldean, Frantziako Estatuko beste alde batzuetan eta Belgikan zebiltzan koadro askok, zenbait buruzagi historiko ezagun tartean, alde egin zuten erakundetik, zentzurik ez zuen jarduera militarra luzatzen ari omen zelako eta sozialismoaren alde egin beharrean nazionalismoa bultzatzean ari zen estrategia politikoa omen zeramalako. Beste koadro historiko batzuek, erakundearen antolamendu militarraren zuzendaritzakoak izandakoek, erori gabeko azpiegitura kontrolpean zeukanenek, beste ETA bat osatu zuten (garai hartan ETA V.a esaten geniona) VI. Biltzarrean bildu zen ETAren kontra. Erdian, zuzendaritza berria, osorik, eta Hegoaldean 1969ko apirileko erorikoen ondoren berrosatutako erakundeak gelditu ziren. Jose Ramonek, berak kontatzen dituen arrazoiak eta gorabeherak direla medio, zenbait hilabete zeraman Bizkaian, isilpeko bizimodua eginez, ETAko zuzendaritzako partaide gisa, nahiz eta ordura arte Iparraldeko erakunde militarreko kidea izan.

Orriotan ETAren historiaren alderdi bat kontatzen da; geroago ETA VI.aren garaia deitu zaiona. Jose Ramonek orduko bere asmo eta itxaropenak, bere zalantza eta ulertzintasunak ematen dizkigu jakitera, eta nahiko erretratu zuzena utzi digu.

ETA VI.eko jendeok hausnarketa kritiko sakona egin genuen garai hartan: erakundeak zeraman dinamika armatua eztabaidatzeko eta gure pentsamolde politikoaren zenbait osagarritan zirauen etnizismo nazionalistaren zama gainetik kentzeko. Gogoan izan behar da "autodeterminazioa", gaur egun hainbeste jendek partekatzen duen aldarria, ETA VI.aren bidez atera zela argitara euskal nazionalismoaren mundura, eta ETA V.ak garai hartan spanishismoaren ezaugarri eta euskal nazioaren kontrako eraso gisa hartu zuela.

Urte erdiko tartea dago VI. Biltzarretik Mentxaka erori zen arte, baina askoz denbora luzeagoa behar izan zen ideia haiiek gure erakundean behar bezala gorpuzteko.

Liburu honetan jasota gelditu den garaia gure ideia propioen desorekarena da, eta Joxe Ramonek, iritzi zuzenez, ez zuen giro hura apaindu nahi izan.

Kontakizun honetan ageri den ikuspegia komisarian egin zizkioten galdeketetan ateratako kontuekin osatuta dago. Horregatik, seguru asko, 1970eko abenduan abian jarri zen Burgosko Prozesua gogoratzen duenean, ez da Francoren diktadura ahultzeko –bai barrutik, bai kanpotik– izan zuen eragin politiko izugarria gehiegi nabarmenzen. ETAko zuzendaritza ari ziren epaitzen, eta orduko ihes-asmoei buruzko gorabeherak dauzka Mentxakak gogoan.

Ezinezkoa izan zen. Ondo dakigu. Baino oso gutxi falta izan zuen arrakastatsua gertatzeko. Gogoan daukat Jose Etxebarrieta – garai hartako gure aholkulari politiko nagusia eta abokatu-taldeko partaiderik garrantzitsuena, beharbada– ihesaren ondoko guztia planifikatzen nola zebilen: sekulako ekitaldi politiko batean, Parisen agertuko ziren denak lehen aldiz jende aurrean. Ezinezkoa izan zen, baina gertatu izan balitz, lurrikara politiko izugarria piztuko zukeen. Jose Ramon izan zen egitasmo hartako ingenaria. Erori zenean, gaizki intendako operazio hari buruzko ohar eta erreferentziak harrapatu zizkion poliziak, berak idatzitakoak, eta auskalo zenbat aldiz madarikatu ote zuen bere burua koadernoa gainean eramateagatik.

Su-eten iraunkorra deklaratu du ETAk martxoaren 24an, eta egun batzuk geroago ari naiz ohar hauetan idazten. Une bereziki egokia iruditzen zait Mentxakaren aitorpena irakurri eta ezagutzeko. Berrogeita hamar urteotan marka handia utzi du ETAk gure herriko zenbait gazte-belaunaldiren pentsamolde eta esperientzian eta bere historia luze eta konplexuaren zati bat da honoko hau. Historia horrek, jakina, hausnarketa kritiko eta sakona eskatzen du, eta horretarako ikuspuntu askotatik heldu behar zaio. Liburu honek eskaintzen duena ez da historialari akademiko baten begirada; oroitzapen pertsonalak dira, azken batean. Baino aipatu historia hori –alderdi bat, behintzat– “bizitzeko” aukera on bat da, eta inongo obra akademikok jaso ezin dituen gertaerentzat, pentsamenduen, sentsazioen eta esperientzien bitartez ulertzeko modua eskaintzen du.

Orriok irakurtzeari ekiten diona laster konturatuko da erabaki zuzena hartu duela. Berehala harrapatuko du historiak.

Petxo Idoyaga
Bilbon, 2006ko apirilaren 27an